

## ALPINISMORAKO TEKNIFIKAZIO TALDEA

### TESTUA



Alexander Arrizabalaga

Mendi gidaria, Alpinismoko Teknikazio Taldeko zuzendaria.

Talde honen edizio berri hau Frantziako Alpeetara egindako irteerarekin bukatutzat ematen dugu. Azken talde hau urte bakar batez aritu bada ere eta ez ohikoa den bezala 2 urtez, oso trinkoa izan da.


Azaroan hasiera eman genion autoerreskatea, orientazio teknikak, alpinismoa, mendiko eskia, eskalada artifiziala, autobabesa eta kirol eskalada barne zituen programari. Badira ere berrikuntza batzuk, erronka berriak, planteamendu berriak, etorkizuneko taldeen oinarriak finkatzeko. Ahalegin guztiak eginda ere, badirudi, mutilekin ez bezala, neskak animatzeko zailtasunak daudela. Edizio honetako taldean 2 mutil eta neska bat geratu dira bukaera arte.

Lehenengo teknifikazio modulua autoerreskateari eskaini genion. Horma eta eremu teknikoetan eraginkorragoak bihurtuko gaituzten maniobra multzoa, eskalatzaile gehinentzat guztiz ezezagunak. Autoerreskatea, saiakera asko, kontzentrazio handia eta sokaren erabilpenaren tekniken eta gainontzeko materialaren ezagutza sakona eskatzen duen jarduera konplexua da. Autoerreskatearen teknikak menperatuz bizitza salba dezakegu, gurea eta besteena, horregatik ariketak etengabe egin beharra dago eskema eta mugimendu guztiak automatizatu arte. Etxetik gertu ditugun eskalada eremuetara goaz: Atxarte, Araotz... eta borondate onez utzi diguten rokodromo pribatu aproposak. Eskerrik asko Javi!

Hurrengo modulua orientazioari dagokiona da. Oso esparru baliagarria da, ez horren gogorra fisikoari dagokionez, baina intelektualki gogorragoa. Javik utzi digun azpiegituraz baliatuz saio teorikoak eta kartografia, ipar-orratza, GPSa, orienteering eta smartphone aplikazio saioak burutu ondoren, landutako eduki teoriko guzti horiek inguruko mendietan praktikan jartzen ditugu.

Negua indarrez dator eta eski eta izotzari dagozkien moduluei ekiten diegu: Gavarnie aldera goaz mendi eskia eta alpinoari dagozkion saioak burutzera. Pirinotako eskualde honek, etxetik ez oso urrutira jarduera ezberdinak burutzeko aukera ematen digu. *Pic du Midi du Bigorre*, *Tailhonek* mendebaldeko aurpegia eta *Pibesteko* kareharrizko hormak gure jokalekuak izango dira, baina, hau ez da umeentzako jolasa. Jolas arriskutsua da, horregatik da

### Alpinismoko jarduera.



formakuntza hain garrantzitsua. Arriskuak kudeatzeko, erabaki egokiak hartzen ikasteko eta "zona de no confort" deritzon egoeretan moldatzeko baliagarriak.

Hau izan da Euskal Herrikan kanpo egin dugun lehengo irteera eta taldeak funtzionatzen duela ikusi dugu, Keni eta biok balorazio oso positiboa egin dugu eta edizioak bukaera ona izango duela aurrerikusten dugu. Konfiantza nagusitu da partehartzaileen artean eta harreman pertsonalak taldean oso onak dira. Izan ere, hone-lako proiektuak zuzentzen duzunean beti dago kezka hori. Partehartzaileen maila tekniko altu batek ez du bermatzen harreman





Kirol eskalada, eremu teknikoetan aritzeko ezinbesteko osagaia.

arrakastatsuak sortzea, horregatik baita ere arreta ipintzen dugu taldekideek harreman positiboak sortzeko duten erraztasunean, eta esan beharra dago talde hau bikain moldatu dela.

Hurrengo modua alpinismoari dagokiona izango da eta aukeratutako ingurua *Teiera*. Bitartean, Irantzu Euskadiko bloke kopa irabazteko eta Euskadiko bloke txapelketan bigarren gelditzeko tartea hartuko du lehiaketan hasten den lehen-dabiziko urtean.

Apirilean bagoaz *Lleidara*, edozein eskalada motan aritzeko horma ugariak dituen lurraldera. *Riglos, Vadiello, Mont Rebei,*

*Villanova de Meia, San Llorens, Camarasa* eta *Santa Linya* burutuko ditugu gure eskaladak. Jarduera hauetan, urtean zehar ikasitako edukiak praktikan jartzen ditugu, friend eta fisureroen kokapen egokitik hasi eta bide zorrotzenek behartzen gaituzten "errepertorio gestuala" ren hobekuntza eskuratu arte. Ikasteko aukerak anitzak dira eta une bakoitza ikasketa saio bihurtzen da: dinamikoak "fugatu", estriboak egoki ipini, noraino aurrera egin baina jauziz gero, minik ez hartzeko zein punturaino den kalkulatu e.a., dena da garrantzitsua eta ikasteko modurik onena ekin eta ekin.





*Barre des Ecrins mendiko hegoaldeko hormak gure trebetasunak neurtzen.*

Maiatzean zehar partehartzailiek beraien proiektuak burutzen dituzte eta ekainaren 19an Alpeetara abiatuko gara. Aurrekontu justu samar batek baldintzatuta, ikusmira *Ecrin*seko parke naturalean jarri dugu, gure oinarrizko kanpalekua camping batean izango dugu eta hainbat gau mendizale guztioi ezaguna egiten zaigun izar gehien dituen logelan: bibaka.

Gure erronkak *Pilar du Palavar*, *Barre des Ecrin*seko hegoaldeko horma, *Tete de Aval*, *Fournel* haraneko hormak izango dira eta itzultzean bisita bat *Ceüse* eskalada eremu ospetsura. Hasieran *Meije* mendian jarduera bat burutzea aurreikusita zegoen baina bertara joateko errepidea itxita dagoela, ez dago ez denborarik ez aurrekonturik eman beharreko buelta guztia emateko, *Fournel*eko eta *Ailefroide*ko hormak izango dira ordezko duinak. Irteera guztian zehar ez dago atsedenerako egunik, baina jardueraren intentsitatea kudeatzen dugu jarduera gogorrenetan oso nekatuta ez egoteko, izan ere istripuetarako eszenatoki egokia izaten baita.

Oso garrantzitsua da aipatutako esparruaren diseinu egokia, izan ere, irteera "expres" hauetan eduki guztiak milimetrora programatu dira eta beti egongo da espero ez duzun egoera bat; jarduera gogorrena norberaren sasoi onenarekin bat etortzea nahiko zaila da, baina horri gehitu behar bazaio sasoi on hori pertsona ezberdinek izan behar dutela aldi berean gauzak konplikatu egiten dira. Eta gehitzen jarraituko dugu: eguraldia lagun izan behar duzu eta hau ez da beti gertatzen; halakoetan segurtasun dekalogoaren lehenengo premisa indarrean jarri beharra dago, hain zuzen zentzuz jokatzeko, eta hau mendian aplikatzeak, zenbaitetan atzera egiten jakitea esan nahi du, izan ere beti egongo da beste aukera bat bizirik bagaude behintzat!

Edizio honetan, talde honetan arduradun eta irakasle lanetan aritu dira: ALEXANDER ARRIZABALAGA zuzendaritzan, entrenatzaile eta Mendi gidari. EUKENI SOTO, alpinismo arloko arduraduna, UIAGM gidaria eta Goi Mendi gidari.

## ZENBAIT IRITZI

*"Niretzat berriak ziren aktibitateak burutu ahal izan ditut eta hauek burutzeko era egokia zein den ikasi ere. Gainera leku ederrak ezagutzeko aukera eduki dut. Pozik orokorrean bizitutakoarekin eta mendiez gozatzen jarraitzeko gogoarekin"*

Andoni Iturrioz Huarte.

*"Oso gustura egin ditugun mendi irteerekin eta ezagututako lekuekin. Aukera polita izan da mendian egin daitezkeen jarduera desberdinak jorratzea"*

Iker Iraragorri Arbonies.

*"Seguruenik taldetik kanpo ez nituzke izango esperientzia hauek bizitzeko aukera, horregatik eskertzekoa da nire partez, nigan egindako apustua"*

Irantzu Porres Etxebarria.